



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

2025. URTEKO DIRULAGUNTZA PLANA

LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUA

Osoko bilkura:

Ainara Herce San Martín, kontseiluburua

Arantza González López, kidea

Enara Venturini Álvarez, kidea

Josu Aguirre Goitia, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), goian esandako kideek osatua, 2025eko urtarrilaren 30ean eginiko bilkuran, Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) 2025. Urteko Dirulaguntza Plana onetsi du.



LABURPENA:

I. AURREKARIAK	3
II. ERABAKI DU	4
ERANSKINA	5



I. AURREKARIAK

1. Lehiaren Euskal Agintaritzaren 1/2012 Legeak, otsailaren 2koak, Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA/AVC) sortu zuen, Administrazioako erakunde autonomo gisa, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia, eta berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu bere eginkizunak betetzeko.

2. LEA/AVCren helburua merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoek dagokienez. Eskumen hauek izango ditu, dituen helburuak betetzeko: zehatzekoa, sustatzekoa, aurkatzekoa, ebazpenak ematekoa, kontsultakoa eta arbitrajekoa.

3. Abenduaren 21eko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua dio Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek aurretik planifikatu behar dituztela emango dituzten dirulaguntzak plan estrategiko baten bidez. Plan horretan zehaztu behar da, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez, zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epetan lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dituzten eta, dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, planaren helburuarekin erlazionatutako ekintzak eta adierazleak zein diren.

4. 2024ko abenduaren 20an eginiko bilkuran onetsi zuen LEKek LEA/AVCren 2025-2028 aldirako Dirulaguntza Plan Estrategikoa.

5. 2024ko abenduaren 20an eginiko bilkura hartan bertan onetsitako LEA/AVCren 2025erako Ekintza Planak, berriz, aintzat harturik lehiaren kultura ez dagoela ez gure gizartean ez merkatuetan behar bezain errotuta, bere sustatze-funtzioak sendoago gauzatzea aipatu zuen bere helburuen artean, nola, eta zigorrez besteko zenbait mekanismoren eta preskriptoreekiko elkarlanen bitartez.

Beraz, lehenengo aldiz onetsiko du LEA/AVCk lehiaren alorreko xedapenekiko bat-etortze programak finantzatzeko dirulaguntza-programa. Haien helburua da langile autonomoei, ETEei eta mikroenpresei laguntzea lehiaren alorreko arauak betetzen, hartara, finean, merkatuek lehiapean jardun dezaten.

Enpresek lege-arauak betetzeko beren programetan *lehia* aldagaia ere gehitzea sustatu nahi da horrela, eta, bidenabar, beren arteko benetako lehia izan dadin eta merkatuek ondo funtziona dezaten.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorra onetsi zuen legean 20.000 euroko kreditu-zuzkidura xedatu da 2025erako, 4. kapituluan (dirulaguntzei buruzkoan, alegia), LEA/AVCren 6115 programako 1.61150.45001, PEP 2025/000457 aurrekontu-sailean.



6. Bestetik, hainbat sustapen-ekintza eta -kanal proaktiboki aktibatzeaz gain, profesional gazteekiko konpromisoa sendotu asmo du LEA/AVCk, praktikaldi-programaren bitartez, eta prestatzeko eta ikasteko aukerak eskaintzea ere bai.

2024ko ekitaldian, laugarren urtez jarraian, prestakuntza-beken deialdia jaulki zuen LEA/AVCk (LEA/AVCren Presidentearen Ebazpena, 2024ko ekainaren 6koa; 2024 irailaren 3ko EHAA, 171. zenbakia). Lau eskatzaile aurkeztu ziren deialdira, eta 2024ko urriaren 28ko Ebazpenak esleitu zuen beka. LEA/AVCren egoitzan ari da egiten bekaduna prestatze-praktikaldia, 2024ko azaroan hasia eta 2025eko uztailan amaituko dena, eta esperientziaren emaitza ona ari da izaten bi aldeentzat.

Sustatze-jarduerekin jarraitzeari interesgarri irizten jarraitzen du LEA/AVCk, eta, hala, 2025. urtean deialdi berria zabalduko du bere berezko funtzioen arloan teorikoki nahiz praktikoki prestatu eta horretan sakondu nahi duten unibertsitateko goi-mailako ikasleei zuzendua,

Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorra onetsi zuen legean 6.460,00 euroko kreditu-zuzkidura xedatu da 2025erako, eta 8.540,00 eurokoa, berriz, 2026rako konpromiso-kreditua, 4. kapituluan (dirulaguntzei buruzkoan, alegia), LEA/AVCren 6115 programako 1.61150.45100, PEP 2025/000457 aurrekontu-sailean.

7. Aurreko hori guztia dela eta, eraginkortasuna areagotzeko eta publizitatea eta gardentasuna bultzatzeko, Lehiaren Euskal Agintaritzaren 1/2012 Legearen 9. artikulua xedatutakoarekin bat, Lehiaren Euskal Kontseiluak

II. ERABAKI DU

LEHENENGOA: LEA/AVCren 2025. urteko Dirulaguntza Plana onestea, zeina Eranskin gisa gehitu baitzaio Erabaki honi.

BIGARRENA: Erabaki hau bidezkoak diren komunikabide ofizialetan argitaratzeko agintzea, betiere LEA/AVCren <https://www.competencia.euskadi.eus/> webgunean.



ERANSKINA

ARDATZ ESTRATEGIKOA: LEHIAREN KULTURA SUSTATZEA

Helburu estrategikoa			
Lehiaren arloan eta LEA/AVCren berezko funtzioei dagokienez, prestakuntza eskaintzea unibertsitate mailako tituludunei.			
Dirulaguntza-lerroa			
Bekak			
Organoa			
Kontseiluburua			
Programa			
6115 Lehiaren Euskal Agintaritza			
Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
HELBURUA Lehiaren arloan eta LEA/AVCren berezko funtzioei dagokienez, prestakuntza eskaintzea unibertsitate mailako tituludun bati.			
EKINTZA: Prestakuntza			
ADIERAZLEA Prestakuntza-ekintzaren ordu kopurua (1.200 h/bekadun).			
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta			
4. kapitulua	Urtea	Zenbatekoa (€)	Ehunekoa
	2025	6.460	43,06
	2026	8.540	56,94
	GUZTIRA	15.000	100
Sektore hartzaileak			
LEA/AVCren berezko funtzioen arloan prestakuntza teoriko zein praktikoan sakondu nahi duten unibertsitateko goi-mailako tituludun gazteak.			
Dirulaguntza esleitzeko prozedura			
Urteko deialdi publikoa egiten duen Ebazpena Esleitze-prozedura lehia bidezkoa izango da, eskaerak deialdian aldeztutako baldintzen arabera konparatuta.			

**ARDATZ ESTRATEGIKOA: LEHIAREN KULTURA SUSTATZEA**

Helburu estrategikoa
Enpresen artean lehiaren kultura handitzea eta zabaltzea, lehiaren alorreko xedapenekiko bat-etortze programak diseinatzea eta aplikatzea diruz lagunduz, merkatuen jardun egokiari laguntzen diotenak.

Dirulaguntza-lerroa
Dirulaguntzak

Organoa
Kontseiluburua

Programa
6115 Lehiaren Euskal Agintaritza

Helburuak, ekintzak eta adierazleak
HELBURUA Enpresen artean lehiaren kultura handitzea eta zabaltzea, lehiaren alorreko xedapenekiko bat-etortze programak diseinatzea eta aplikatzea diruz lagunduz, enpresei lehiaren arloko arauk betetzen laguntzen dietenak eta merkatuek lehiapean jardutea bultzatzen dutenak.
EKINTZA: Lehiaren alorreko xedapenekiko bat-etortze programak diseinatzea eta aplikatzea.
ADIERAZLEA Zenbat dirulaguntza ematen den. Zenbat bat-etortze programa onesten den.

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta			
	Urtea	Zenbatekoa (€)	Ehunekoa
4. kapitulua	2025	20.000	100
	GUZTIRA	20.000	100

Sektore hartzaileak
Langile autonomoak, ETEak eta mikroenpresak.

Dirulaguntza esleitzeko prozedura
Urteko deialdi publikoa egiten duen Ebazpena Jasotzen diren eskaerak ordenean esleitu dira, bata bestearen ondoren, bakoitzaren espedientea osatzen den uneari jarraikiz.